



BARREN  
TOKIKOM



# Zientzia erakusleihora

Helena Ostolaza

## 10KiaEgun

Otsailaren 10etik 21era

**NAIA CAR**

Apalategi auzoa,1  
Elbar. Gipuzkoa

[www.naiacar.com](http://www.naiacar.com)

☎ 943 70 70 33





## MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel: 943 740 284 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIAGAILUAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA  
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehenerik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbata: 11:00 - 13:00

*Inoiz ere ezin izango duzue denak.  
Dena ordua hartzeko.*



**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
cordonvilarchao@telefonica.net  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 986 162**

## EXPRESS ESKAINTZAK!

### LG F4WV3008N3W ARROPA GARBIGAILUA



**429 €**



- 8 kg-ko karga
- 1.400 b/min
- 14 programa
- Ai Direct Drive
- Direct Drive motorra, 10 urteko bermea

## MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



# %25

- ★ **Neguko izaretan**
- ★ **Sherpa edredoietan**
- ★ **Manta guztietan**

## Merkealdia!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Jaso nahiko al zenituzke  
**ELGOIBAR**ko  
eta **MENDARO**ko  
berriak zure e-postan?

Harpidetza nola egin  
behar duzun jakiteko,  
sartu [barren.eus](http://barren.eus)-en eta  
egin klik 'Nor Garen' atalean.  
Bertan topatuko dituzu  
azalpen guztiak.





ASIER GUIASOLA IÑIGUEZ

Portu, ubide eta bideetako ingeniaria

## Bideak eta mantatxoa

erakutsi dit. Gaur bertan, aspaldiko partez, ordubete pasako bainua hartu dut etxeko txikiarekin batera. Ederra.

Zer esanik ez etxetik irten eta kaletan nagoenean. Edo auto zarata, ke eta zikinkerarik gabeko parke eguzkitzuko eserlekuan, inguruan gertatzen dena lasai begiratzen, beste ezer egin gabe.

Horretarako baina, gure auzoak gauroraz eraikita egon behar dira. Arkitektura, batez ere, "ongizatea nola lortu?" galderari erantzun onak topatzea zela zioen Zaha Hadid arkitekto andere famatuak. Ez du balio gure espaloi, bide, kale, eserleku, gune berde edota plazak edonolakoak izatea. Etxeko sofaren eta mantatxoaren besteko konforta euki

behar dute, akustikoa, termikoa eta bisuala. Irisgarritasuna, mugikortasun jasagarria eta segurtasuna alde batera laga gabe, zaugarrienen mesedetan batez ere, baina baita pertsona guztien patxadarako ere.

Europatik Next Generation berreskuratze funtsak etorriko dira gure administrazioetara laster. Gure etxebizitza eta hiriguneak hobetzeko aukera ezin hobea pare-parean. Hori dela eta, hiritarren partaidetza eta ideiak tokiko administrazioei mesede egingo die. Askotan hiritarren beharrezan ez baitira erabaki mahaietara iristen. Sinistu niri, hamasei urte luze egin berri ditut-eta tokiko administrazioan lanean. Animatu! Betiko bideetatik ez baitago leku berrietara iristerik.

**P**atxadaz bizi naizela esaten didate askotan. Karkar. Arrapaladan dabilena azkar nekatzen dela pentsatzen dut nire baitan hori esaten didatenean. Nori ez zaio ba gustura egotea gustatzen?

Plan ederra izaten da niretzat eguraldi eskaseko egunetan etxeko sofan eseri, gainean manta jarri eta film eder bat ikustea. Osasun eta ekonomia krisi txoroak etxeko konfortxokoak eta plazer txikiak lehen baino gehiago baloratzen

*"Ez du balio gure espaloi, bide, kale, eserleku, gune berde edota plazak edonolakoak izatea"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazitako erantzukizunik.

**KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEÑATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

## ► ESKERRIK ASKO ELGOIBARKO IZARRARI

Baso Eskolako formakuntza egin ostean, Katamixarren Basoa sortu nahi nuen, baina Txillarre Ekodenda eta baratzeke lan kargetik martxan jartzea zaildu zidaten. Elgoibarko Izarra bidelagun izateko prest agertu zen, eta, bere esperientziaz baliatuz, proiektu pilotu baten bitartez amets hura egi bihurtzen lagundu zidaten. Bilerak askoren ondoren, 2021. urteko irailetik azarora bitartean proiektu berri eta berritzaile hura gorpuztea lortu genuen. Jolas librea oinarri hartuta, basoan, baratzean eta animaliekin elkarbizitzan gozatzerako 40 ordu animatu ziren. Haur horiek eta beraien familiak ere bidelagun izan ditugu proiektu pilotu honetan, eta denei eskerrik eman nahi dizkiet eskutitz honen bitartez.

Proiektu pilotua bukatuta, martxotik aurrera berriz ere zabalduko ditugu Katamixarren Basoko ateak. Izen-ematea otsailaren 23ra arte egongo da zabalik. Hemendik aurrera Katamixarren Basoko informazioa jasotzeko [katamixarrenbasoa@gmail.com](mailto:katamixarrenbasoa@gmail.com) helbidea zuen esanetara dago.

Oraingoan elkarlanean izango ez bada ere, aurrera begira espero dugu Elgoibarko Izarrarekin elkarlan berriak egiteko aukera edukitzea.

Eskerrik asko!

**Argiñe Rubio Zubiaurre**

## ► KIROLA ETA "OSASUN" PASEA.

*Legeak agintzen du eta ezin dugu ezer ere ez egin. Goitik datoz aginduak.*

Horrelako erantzunik eman dizkigute kirol klub eta aretoen zuzendaritza taldeetatik ditxosozko "osasun" pasaportearen kontura.

Herritar, erabiltzaile eta zerga ordaintzaile bezala dezepzioa, desilusioa, atsekabea eta tristura sentitu dugu. Ara-

zoa, era batera edo bestera, herritar orori tokatu zaigu, baina, bereziki, haur eta gaztetxoek guraso bezala sumin eta haserre handia sentitu dugu. Gure seme-alabei eragin zaien bazterketa justifikatuz ezina eta ankerra izan da.

Nahiz eta beti gustukoak ez izan, ulertzen dugu arauak eta erakundeak errespetatu egin behar direla elkarbizitzarako. Baina gizabanako bezala etika, kontzientzia eta iritzi kritiko bat ere izan beharko genuke; "legea" eta "gizalegea" desberdintzeko gaitasuna.

Kontua ez da aginduak betetzea edo ez betetzea. Bi erabaki horien artean aukera ezberdinak daude. Egin al da hausnarketarik kirol taldeetan? Idatzi al da erakunde eta federazioetara desadostasuna agertuz edo azalpenak eskatuz? Planteatu al da erdibideko irtenbideren bat kirolari bakar bat ere ez izateko baztertua?

Jakin badakigu herriko hainbat kirol taldek bat egin zutela federazioek legeak debekatuta zegoen eskola kirola berriz martxan jartzeko Eusko Jaurlaritzari egin zioten eskaerarekin. Horretarako prest agertu dira taldeak baina, aldiz, "osasun pasea" indarrean egon den bitartean herritar askok ezin izan du kirola praktikatzea, baztertuak egon dira. Zergatik diskriminazio hori? Norberak aurki dezala bere erantzuna.

Beste behin, Estatu espainiar mailan, oso erkidego gutxi izan dira EAEn bezalako murrizpen, debeku eta bazterketak ezarri dituztenak. Hala ere, neurri kanpoko erabaki horiek ezin izan dute ekidin zifren gorakada; kudeaketa eskasa eta nekeza izan dela bistaratu. Hori dena gure "ordezkarien" aginduz eta onarpenaz eta, zoritxarrez, baita gutako zenbaiten kolaborazioarekin ere. Triste benetan gure patua.

**Iratzargailua**

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigarrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idatzkiak, pertsona eta erakundeetako zuzenduriko mehatxak...
6. Ez dugu gaztekeraz datoren eskutitzik argitaratuko.

## Dei faltsuak jaso dituzte herritarrek, uraren kalitatea neurtzeko aitzakia erabilia

Udaltzaingotik jakinarazi dute hainbat herritarrek deiak jaso dituztela egunotan, teknikariak etxeko uraren kalitatea neurtzera pasatuko direla esanez. Gure eremuan egiten ari diren azterketa baten barruan, etxeko uraren kare kantitatea neurtzera etorriko direla esan diete. Udaltzaingoa ohartarazi du dei horiek ez direla egiazkoak. Gipuzkoako Ura agentziarekin jarri dira harremanetan, eta handik esan diete une honetan ez dagoela mar-tan horrelako ikerketarik. Beraz, era horretako deiekin adi ibiltzeko eskatu dute, eta edozein zalantzaren aurrean Udaltzaingora deitzeko: 943 741 394.



## Anbulatorioa 24 orduz zabaltea eskatzeko batutako sinadurak aurkeztu dituzte Udalean 24/7 plataformakoek



Elgoibarko hainbat gizarte eragilek osatutako 24/7 Plataformak Elgoibarko ambulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zabaltea eskatzeko sinadurak baten jardun zuen iazko azaroan eta abenduan, eta 5.501 sinadura batu zituzten guztira. Joan zen barikuan entregatu zituzten sinadura horien kopiak udaletxean. Gogora ekarri zuten Elgoibarko ambulatorioko zerbitzuak jasan dituen "murrizketak" salatzeke bilatu dutela herritarren babesa. Izan ere, "pandemiaren aitzakia erabilia" 17:00etan ixten dute orain ambulatorioa, eta asteburuetan ere itxita egoten da. "Ondorioz, larrialdi medikoak dituzten Elgoibarko herritar guztiak Mendaroko ospitalera edo Eibarko Torrekuako osasun zentrorra joan behar dira, horrek gizarteko sektore ahulentzat, hala nola umeentzat eta adinekoentzat, duen eraginarekin", azaldu dute. 24/7 Plataformak bilera bat egin nahi du Udaleko alderdi politikoekin, ambulatorioan larrialdi zerbitzua berrezartzeko zer urrats eman erabakitzeko.

## Greba deialdia Osakidetzan, otsailaren 25erako eta 28rako

SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek bi greba egun egingo dituzte otsail bukaeran Osakidetzan, "arazo larriak konpontzeko Jaurilaritzak duen borondate eza" salatzeke. Otsailaren 25ean lehen arreta zerbitzuan izango da lanuztea, eta hurrengo egunetan manifestazioak egingo dituzte Bilbon, Donostian eta Gasteizen osasungintza publikoaren defentsan. Hirurak hasiko dira 12:00etan. Hilaren 28an, berriz, Osakidetza osoan egingo dute greba. Sindikatuetako ordezkariak salatu dutenez, "argi eta garbi esan dezakegu Osakidetzak eta Osasun Sailak ez dutela pauso bakar bat ere eman, eta ez dutela neurri bakar bat ere proposatu Osakidetzak dituen arazo larriak konpontzeko".

## Nekazaritzako ibilgailuen azterketa teknikoak, apirilaren 27an eta 29an

Nekazaritzako ibilgailuen IAT azterketa egingo dute, apirilaren 27an Mendaroko Caldereria Lili enpresaren parean 12:00etatik aurrera, eta Elgoibarren, apirilaren 29an egingo dute Mintzetan, 9:00etatik aurrera. Ardura-dunek jakinarazi dute ez dela aurrez izenik eman behar, eta bertan azaltzarekin nahikoa izango dela. Honako nekazaritzako ibilgailuek pasa behar dute IATa: zortzi urtetik 16 urtera bitarteko traktoreek (bi urtetik behin) eta 16 urtetik gorakoek (urtero).

Zalantzak argitu edota informazio gehiago eskuratzeko 943 769 753 telefono zenbakira deitu daiteke, [itv.bergara@itasua.com](mailto:itv.bergara@itasua.com) helbidera idatzi edota [www.itasua.com](http://www.itasua.com) web orrian kontsulta egin.

## 370 kopa menstrual banatu ditu Udaleko Berdintasun Sailak



'Gure gorputza eta sexualitatea' ekimenaren baitan, joan zen abenduan, Udalak, ziklo menstrual bere osotasunean ezagutzeko jardunaldia antolatu zuen, eta horrekin batera kopa menstrualaren zabalkundea ere egin zuen. Horren harira, Berdintasun Sailak kopa menstrualak banatu ditu, debalde, Elgoibarko emakumeen artean. Kopak jaso ahal izateko aurrez eskatu beharra zegoen eta 370 emakumek eskatu dituzte. Era berean, HAZen (Herriarren Arreta Zerbitzua), Udal Liburutegian, Udal Euskaltegian, Ludotekan, Gaztelekuan, Olaizaga kiroldegian, Inazio Bereziartua musika eskolan eta Herriko Antzokian emakumeen higienarako produktuak daude eskura, aurreikusitako gabeko beharren aurrean, herritarrei zerbitzua emateko.

## Poltsa industrialak ezin direla beira-edukiontzietan laga ohararazi du Mankomunitateak

Debabarreneko Mankomunitateak jakitera eman duenez, azken hilabeteetan "ohikoa" izaten ari da beira-edukiontzien barruan poltsa industrialak ikustea, eta hori ezin dela egin gogora ekarri dute. Pegatinak jarri dituzte edukiontzietan herritarrei, eta batez ere tabernariei, mezu argi bat helarazteko: ezin da inolako poltsarik bota edukiontzi horietara. "Beira poltsetan jasotzen bada ere, poltsak hustu egin behar dira beira edukiontzira botatzeko. Poltsek birziklapena oztopatzen dute eta edukiontziak hondatzen dituzte", azaldu dute.



## Langabezia tasak behera egin du urtarrilean Elgoibarren eta Mendaron

Langabezia tasak behera egin du urtarrilean Debarrenean, eta eskualdeko langabe kopurua gutxitze horrek eragina izan du Elgoibarko eta Mendaroko datuetan ere. Iazko abenduan 471 langabe zeuden Elgoibarren (%8,69) eta 79 Mendaron (%7,78). Urtarrilean, 459 lagun daude langabezian Elgoibarren (%8,47) eta 76 Mendaron (%7,48). Bailarako herri guztietan jaitsi da langabezia tasa, eta une honetan 2.679 langabe daude Debarrenean (%10,22), abenduan baino 54 lagun gutxiago.

## Odol ateratzeak gaur, Elgoibarren

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur arratsaldean, Jubilatuen Biltokian. 16:30ean hasiko dira, eta aurrez hitzordua hartu behar da, whatsapp zenbaki honetan: 623 328 408. Otsailaren 25an izango da hurrengo odol ateratzea.

## Aulkiak eta zakarrontziak, San Pedro kalean

Auzotarren eskaerari erantzunez, aulkiak eta zakarrontzia jarri ditu Elgoibarko Udalak San Pedro kalean. Karkiazaoko aldapa hasten den gunean kokatu dituzte, Netto aldera pasatzeko zubiaren aurrean, hain zuzen ere.



## Elgoibarko saltokiek emakume zientzialariak agerian ipini dituzte erakusleihoetan

**G**aur, otsailak 11, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna da. Horren harira, Elgoibarko Udalak eta Elhuyarrek, Egur arte eskolarekin eta herriko ikastetxeekin elkarlanean egitasmo bat ipini dute abian. Herriko 16 erakusleiho apainduz, emakumeek zientziaren eta teknologiaren arloan egin duten lana ezagutaraziko dute Bizilabe gazteentzako zientzia eta teknologia ekin-tzetarako aisialdi-eskaintzaren bitartez. Horretarako, zientzialarien ilustrazioak eta informazioa zein beste hainbat osagarri baliatu dituzte.

Farmazabal; MGS Aseguruak; Casa Astigarraga GYS Sport; Cristina García estetika eta terapia naturalak; Nalai oinetakoak; Karkizano; Eizaguirre okindegia; Pitxintxu opari-denda; Iriondo Kirolak; Ecenarro; Ortosaras-keta; Colchonería Lagunak; Agurtzane ileapandegia; Olaia Martínez estetika zentroa; eta Biok Dekorazioa S.L komertzioek hartu dute parte ekimenean.

Alkateak ekimenaren aurkezpenean adierazi zuen herriko emakumeen eta



merkatarien lana balioan jarri eta ikusaraztea dela asmoa. "Are gehiago zientzia alorrean. Zientziak ere eraikiko du gure etorkizuna eta Elgoibarren badugu hazi hori".

Erakusleihoak apaintzeaz gain, ikastetxeetan ere landu dute emakume zientzialarien gaia, 10 eta 13 urte arteko neska-mutilen artean zientzia suspertzeko. Horretarako Bizilabeko

emakume zientzialariak eta ingeniari elgoibartarrak izan dituzte aldameanean, "modu horretan gertuan ere emakume zientzialariak badaudela bistartzeko eta nerabeak ere zientziara gerturatzeko" esan zuen Maialen Gurrutxaga zinegotziak. Bestalde, ekimena borobilduz Jone Uria matematikari eta bertsolariarekin esperimentu bat egin dute.

## Elgoibarko hirugarren gasolindegia zabaldu du Petroprixek Zizilion kalean



Hainbat urtean Elgoibarren gasolindegia bakarra izan eta gero, hirugarrena ireki berri dute Zizilion kalean. Repsolek Deba kalean duen gasolindegia ostean, MLC konpainiak 2019an zabaldu zuen bigarrena Leruntxikin, eta, joan den astetik martxan da hirugarrena, Petroprixek zabaldu duen autozerbitzu gasolindegia, *low cost* edo prezio merkeko gasolindegia dela diotena. Gasolina prezioen gorakada historikoa, herrian inoiz baino gasolindegia gehiago daudenean gertatu da: batezbeste 1,53 euroan dago gasolina litroa eta iaiz baino 17 euro garestiagoa da auto arrunt baten depositoa betetzea.

## ▶ HELENA OSTOLAZA ETXABE

BIOKIMIKAN  
KATEDRADUNA

Biologoa da Helena Ostolaza (Elgoibar, 1964) biokimikan espezializatua eta doktore Euskal Herriko Unibertsitatean. Zientzia eta Teknologia Fakultateko Biokimikako irakaslea da eta gaur egun biokimikako katedraduna, biokimika eta Biologia Molekularra Saileko idazkari akademiko ere izan da. Doktorego tesiak zuzendu, ikerketa-proiektuetan parte hartu du, zientzia artikulatuak idatzi eta zientzia kongresuetan parte hartzeaz gain nazioarteko bi patenteren titularra da. Otsailaren 11 da gaur, Emakume Zientzialarien Eguna, zientziaz eta emakumeen jardunaz jarduteko eguna.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



# “Ikertzaileon lana da sendagai bat bilatzeko oinarrizko lehen urratsa”

♦ **Biologia ikasketak egin zenituen EHU eta irakasle zein ikerketa arloan bide luzea egin duzu zientzian. Nola hasi zinen Biologia ikasten?**

COU ikasten ari nintzela kimika eta biologia izan ziren gehien gustatu zitzaizkidan ikasgaiak, beraz, unibertsitatean, Leioan, biologia ikasten hasi nintzen eta biokimikako adarra aukeratu nuen gero. Lizenziaturako bigarren maila egiten ari nintzela irakasle batek laborategiko lana egitea proposatu zidan eta gero tesia egin nuen. Ondoren Cambridgeko unibertsitatean egin nuen doktoretza osteko egonaldia eta itzulitakoan, irakasle lanetan jardun ostean, katedradun naiz gaur egun. Irakasle lana fakultatean egiten dut eta biofisikan ikerkuntzak egiten ditut.

♦ **Gaur egungo zure jarduna zertara bideratuta dago?**

Ikerketa talde baten arduraduna naiz eta nire eginbeharren artean ikasleen formakuntza zientifikoa dago eta proiektuen bidez ikerketa egiteko finantzazioa lortzea. Ikerkuntza proiektuak garatzeko baliabideak, dirua eta pertsonak behar dira. Normalean tesia egin nahi duten ikasle onenak lortzen saiatzen gara. Gure lana da ikasle horien eguneroko lana antolatzea, esperimenduak proposatzea, emaitzak interpretatzen laguntzea eta lortutako emaitzak komunitate zientifikora zabaltzea artikulatuak publikatuz. Zientzia arloan finantziarioak lortzea ez da batere erraza eta gure arloa oso konpetitiboa denez are zailagoa.



### ◆ Zein da zure taldearen ikerketa-lerro nagusia?

Bakterio patogenoek ekoizten dituzten toxina proteikoak aztertzen ditugu.

### ◆ Biofisikak eta biokimikak medikuntzarekin lotura du. Zein eragin dauzkate zuen ikerketek osasunean?

Guk egiten dugun ikerkuntza oinarrikoa da, baina emaitzak epe luze batera aplikazio zuzenagoetara bideratu daitezke edo beste ikerlari batzuen ikerketetan lagun dezakete.

Gure kasuan ikusi dugu aztertzen ari garen toxinak itu-zelulen mintzetara lotzeko kolesterolaren beharra daukala. Kolesterola animalia-zelula guztietan dagoen osagai ugari eta garrantzitsua da, eta toxinez gain, zenbait birusek, GIB birusak esaterako, edo Covid gaixotasuna sortarazten duen SARS-Cov2 berak ere, kolesterola erabiltzen dute zeluletara lotu eta barneratzeko. Beraz, lotura hori eragotzi dezaketen mekanismoak ezagutu edo aurkitzeak toxina eta baita birusen efektu kaltegarriak ekiditeko bide alternatiboak zabaldu ditzake. Orain laborategian aztertzen ari gara nola saihestu daiteken gure toxinen batura bere itu-zeluletako mintzetara, eta horretarako kolesterolari espezifiko lotzen zaizkion peptido edo proteina zati txiki batzuk probatzen ari gara. Azken helburua toxinen ekintza mekanismoa ezagutzea da eta hor zelularen mintzak izan dezakeen garrantzia.

### ◆ Azterketetarako hainbat metodologia erabiltzen dituzue, ezta?

Bai. Mikroskopia elektronikoa, fluoreszenzia, kalorimetria, mikroskopia... teknika biofisikoak batez ere. Horregatik gaude Biofisika Institutuan eta teknika biokimikoak ere erabiltzen ditugu ulertzeko elkarrekintzak.

### ◆ Biofisika Institutuan zientzialari asko zaudete lanean?

Zentrua eta eraikina nahiko berriak dira, Leioako kanpuseko parke zientifikoan gaude, baina bertan gaudenetako ikerlari asko lehenago Zientzia fakultateko Biokimika sailetik gatoz. Gaur egun 80 pertsona inguruk dihardugu lanean; 25 inguru iraunkorrek eta gainontzekoak doktoretza bueltako ikerlariak eta beste programa batzuen bitartez etorriak.

### ◆ Orain zein proiektu daukazu esku artean?

Orain bereziki aztertzen ari gara kukutx ez-tula (tosferina) gaixotasunean inplikaturako dagoen proteina batek zelula immuneetara lotu ostean nolako kalteak eragiten dituen, eta proteina-zelula elkarrekintza horretan mintzetako kolesterolak duen eragina. Horrelako proteina toxiko baten ekintza-mekanismoa argitzea eta ezagutzea epe luzerako helburua da, eta gurea sendagai bat bitlatzeko oinarriko lehen urratsa da, baina beharrezkoa, izan ere, bide terapeutiko berriak garatu ahal izateko prozesuak ezagutzea eta ulertzea ezinbestekoa baita.

### ◆ Bi patenteren titularrak ere bazara, ezta?

Oinarriko ikerkuntzan patenteak aplikazio zuzenak izan beharrean patente intelektualak izaten dira. Hortik merkaturako bidea

oso luzea izango litzateke. Gurean ideiak daude jasota.

### ◆ Gaur, otsailak 11, Emakume Zientzialarien Eguna da. Zuretzat zer da ospakizun ala aldarrikapen eguna?

Biak. Agerian jarri behar diren beste hainbat adarrikapenetarako ere egunak zehaztu dituzte eta zientzian, beste edozein lanbidetan bezala dauden erronkak gizartean dauden erronka eta gabeziak islada bera dira. Beraz, alde batetik poztasuna adierazi behar da, izan ere, nire aurretik zientzian jardun zuten beste emakume batzuen biografikak irakurrita ikusten dut nire aldean zailtasun gehiago izan zituztela eta nik gutxiago izan ditudan bezala espero dut ondorengoek are gutxiago izatea. Baina aldarrikapena ere beharrezkoa da jarraitzen dugulako urte luzetan zailtasun berberak izaten. Besteak beste finantziario falta eta langileen prekarietatea. Esaterako tailer batean langileak ardurapean dituztenek haiek lan egitea nahi badute normalena da behar dituzten tresnak ematea. Gure kasuan guk lortu behar ditugu tresnak eta finantziarioa bestela ez daukagulako zer eman langileei.

### ◆ Emakumeentzako zailtasun gehiago dago?

Orokorrean denentzat da zaila, baina emakumeok zailtasun gehiago izaten ditugu: amatasuna, kontziliazioa... eta horrek zaildu egiten du berez erraza ez den bide profesionala garatzea edota kargu postuetara iristea.

### ◆ Eremu zientifiko-teknologikoan gero eta emakume gehiagok diharduzue. Hala ere oraindik zaila da emakumeen lana agerian jartzea?

Badira urte batzuk karrera zientifiko-teknologikoetan gero eta emakumezko gehiago matrikulatu arren gero eta ibilbide hori lehenago uzten dutenak. Zientziak duen zailtasun handietako bat da karrera oso luzea dela eta oso konpetitiboa. Beraz, lan

finko bat lortzeko proiektuak lortu behar dira, norbere lan zientifikoak argitaratu... Horrelako lan asko egin behar dira urte tarte luze batean eta askotan amatasunarekin bat egiten du eta batzuetan ez da bateragarria izaten. Beraz, karga bat izaten da batzuek karrera zientifiko hori alde batera uzteko eta beste bide batzuk hartzeko.

### ◆ Zein zientzia alorretan dihardu emakume gehiagok?

Biomedikuntzan emakume asko gaude. Orokorrean beste alor batzuetan, kirolean esaterako, nesken taldeak ikustea arraroa zen eta orain gero eta gehiago daude, beraz, aurrera egin dugu eta zientzian ere berdina gertatzen ari da.

### ◆ Zientzia arloan doktoretza egiten dutenen gehiengoak emakumeak da.

Bai. Unibertsitateko matrikulatuetan zientzian gehiengoak emakumeak dira, batez besteko notak eta espedienteak batxilergoan eta unibertsitatean neskenak hobek dira eta tesiak ere gehiago egiten dituzte neskek bekak lortzeko beharrezkoak direlako. Baina tesia egin eta hortik aurrera, karrera zientifiko egiteko, nire arloan behintzat, beharrezkoa da

*“Emakumeok zailtasun gehiago izaten ditugu kargu postuetara iristeko”*

kanpoan denboraldi bat pasatzea eta batzuentzat oztopoa da ez daudelako prest joateko. Beste batzuk, ordea, oso prest egon arren, urte batzuk kanpoan pasa ostean, zailtasunak dituzte bueltatzeko edo itzulitakoan baldintzak oso eskasak izaten dira. Gure arloan daukagun oztoporik handienetariko bat lan baldintza eskasak izan ohi dira. Formakuntza oso ona daukan pertsona batek 40 urtera arte behin behineko kontratuekin jardun beharra oso estresantea da. Ikuspegi horren aurrean ikusten ari gara zientzia gustuko izan arren askok pentsatzen duela ez duela merezi zientziari lotutako hain bide luzea, frustrazioz bete, egitea. Beraz, nahiago dute beste arlo batean lan egitea.

♦ **Zientzietan, beste arloetan bezala, goi karguetan gehiengoa gizonak dira?**


Bai, hala da. Baina uste dut gai honek ez daukala berehalako konponbiderik. Gizarteko beste arazo batzuekin gertatu den bezala belaunaldi batzuk beharko dira emakumeak goi karguetan ikusteko. Denbora asko behar baita jendearen pentsamoldea aldatzeko. Horretarako txikitatik erakutsi behar da generoak genero denok izan behar ditugula aukera berberak, baina hori lortzea oso zaila da, belaualdi asko beste modu batera ohituta gaudelako. Hala ere, aldarrikapenak beharrezkoak dira.

♦ **Zientzialari gazte batek esana da zientzia boterea dela eta ezin dela albo batera utzi horregatik.**

Orain arte, denbora luzez, esparru askotan zientzia ikusi da bigarren mailako gauza bat bezala. Orain, esaterako, Covidaren kasuan, aurretik zegoen ikerkuntzak lagundu du bakuna bat oso azkar merkaturatzea eta beharbada horrek agerian jarri du zientzia laborategi ilun batean gorde behar den zerbaite baino zer-

baiterako balio duen gauza bat dela. Baina gaur arte iluntasun horrek eragin du finantziazio iturriak oso txikiak izatea. Gainera, zientzian inbertitzen dutenek epe laburrean nahi dituzte etekinak eta zientzia epe luzera begirako jardura da. Adibidez, orain dela hamar urte egindako aurkikuntza bat baliagarri izan daiteke hemendik bost urtera beste batek egingo duen ikerkuntza batean laguntzeko. Zientzian berehalako etekinak oso gutxitan lortzen dira eta horrelako kasuetan enpresa pribatuek kontratatzen dituzte ikerlariak. Hala ere, zientzian lan egiten duen jende guttiak ezin du pentsatu Nobel sari bat lortu dezakeenik. Zientzia sustengatzeko oinarritzko maila asko egon behar dira. Zientzia benetan bokaziozkoa izan behar da eta *gogoko tokian aldaparik* ez esaterari jarraituz nik aurrerantzean ere zientzia arloan jarraituko dut ikasgeletan zein laborategietan.

*“Zientzia karreretan neska gehiago matrikulatu arren, ibilbidea lehenago uzten dute”*



## ▶ 2020ko Euskaraldian parte hartzea jaitsi arren, bost parte hartzailetatik bat berria izan zen

2020an egin zen Euskaraldiaren bigarren edizioa, eta ariketaren emaitzen berri eman dute orain koordinazio mahaiko kideek. Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburua, Ana Ollo Nafarroako Gobernuo Herritarren Harremanetako Kontseilaria eta Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria, eta Siadeco ikerketa elkarteko Lide Rekondo eta Unai Oiarzun teknikariek eman dituzte azalpenak.



Parte hartzaile gutxiago izan zituen 2020ko Euskaraldiak, baina balio izan zuen ariketa sozialaren inguruko mezua egonkortzeko, jende berria erakartzeko eta euskararen erabilera sustatu nahian dabilzanean motibazioa indartzeko. Gainera, hizkuntza ohituretan ere arrastoa utzi zuen bigarren aldiak: Euskaraldiak irauten duen bitartean egindako aldaketen artean, lehen hitza euskaraz egiteari eutsi diote tinkoen, baita euskaraz ulertzen dutenekin hizkuntza horretan egiteari ere. Hala ondorioztatu du Siadecok egindako ikerketak.

178.184 lagunek hartu zuten parte bigarren Euskaraldian, 2018koan baino ia %21 gutxiagok. Jaitsiera horretan COVID-19ak izandako eragina nabarmendu du Amonarrizek. Izan ere, 2020ko azaroan eta abenduan egin zen ariketa soziala, pandemia betean, Ipar Euskal Herrian konfinamendua indarrean zela (jaitsiera %37koa izan zen bertan), eta Hegoaldean, etxeratze agindua; eta lanarekin eta aisialdiarekin lotutako harreman sozialak nabarmen murriztuta zeudela. Hala ere, jende berria erakartzeko gaitasuna izan zuen ariketak bigarren edizioan, eta bost partaidetik bat, berria izan zen. Rolan hautaketari dagokionez, oraindik hizkuntza gaitasunarekin lotzen dela azaldu dute, hau da, zenbat eta euskaldunagoa izan ingurua, orduan eta Ahobizi gehiago dago, eta gune erdaldunetan, aldiz, handiagoa da Belarripresten kopurua. Dena dela, bigarren Euskaraldian ere, ahobizi figura izan zen nagusi (%77).

Ariketa sozialak utzitako ohitura aldaketei dagokienez, eza-gunekin eta kalean izan dira aurrerapausorik handienak eta egonkorrenak, ikerketaren arabera.

Sexuari begira, bestalde, emakumezkoak izan dira Euskaraldia ariketan parte hartu dutenen bi heren, eta adinaren arabera

partaidetzari begiratzen badiogu, 30 eta 44 urte artekoak izan dira gehienak.

### Entitateak, estreinakoz

Entitateek lehen aldiz izan zuten Euskaraldian parte hartzeko aukera 2020an: 8.309 egoitzak eman zuten izena, eta 24.363 arigune (euskaraz hitz egiteko guneak) sortu zituzten. Arduradunek esandakoaren arabera, kanpo-ariguneak sortzea errazagoa izan zaie, eta aldiz, gehiago kosta zaie barnekoak sortzea. Gune euskaldunetan errazago egin dute barne-ariguneeen ariketa, eta kanpoena, aldiz, gune erdaldunetan.

### 2022an, hirugarren edizioa

Aurten Euskaraldiaren hirugarren edizioa egingo dute, eta arduradunek diote Siadecoren ikerketa honek lagundu egingo duela ariketaren gaineko erabakiak hartzerako orduan. Ildo horretan, Bingen Zupiria Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Sailburuak parte hartzea handitzera deitu ditu herritarrek. "2020an txikiagoa izan zen, baina, hala ere, ariketa masiboa izan zen, eta masa handi horrek lagun diezaguke jende gehiagorengana iristen, partaideak eragile aktiboago bihurtuta". Kike Amonarriz Topaguneko lehendakariaren ustez potentzialitate handiko artefaktoa dugu eskuartean, eta esan du 2022ak aktibazioaren urtea izan behar duela. Bere ustez kaleak berreskuratu eta txapen erabilera indartzeko unea da. Txostenak txapen garrantzia nabarmendu du, eta horrekin bat etorri da Ana Ollo Nafarroako Gobernuo Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: "Nafarroan, ariketa hau inportantea izan da elkar ezagutzeko, eta txapek balio dute identifikatzeko, bestela, askotan gaztelaniaz egiten dugu lehen hitza, ez dakigulako bestea euskalduna dela".



# Sanda Ageda, kantuan kalera

Santa Ageda eguna da otsailaren 5a eta ohiturari jarraituz, Santa Ageda eskea egin ohi da Euskal Herriko txoko askotan egun horren bueltan. Makilen zalapartak, trikitixa doinuek eta koplek Elgoibar eta Mendaroko kaleak hartu dituzte aurten ere, baina kalejirak pandemiara egokitu behar izan dituzte. Otsailaren 4an Elgoibarko Ikastolako neska-mutilak kalean jardun zuten eta Herri Eskolakoek ikastetxean bertan. Elgoibarko Izarrako taldea ez da baserrietara kantura joan eta Etxeginakoak ere ez ziren kalera irten. Mendaron, ordea, baserriak beharrean kaleak jantzi dituzte koplak kantuan. Argazki gehiago ikusteko: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)





## ▶ JUANJO MARTINEZ ZIRUJAU MEDIKOA

Iratzargailua taldeak antolatuta, Juanjo Martinez (Irun, 1955) zirujauak hitzaldia eskaini zuen Maalako parkean. Martinezek kontsulta pribatua eduki zuen urteetan Eibarko Zentro Medikoan, eta gaur egun osasungintza publikoan dihardu lanean. 'Askatasuna' lemapean antolatu zuten hitzaldia, eta oso kritiko agertu zen agintariak Covid-19a kudeatzeko duten moduez. Txertoaren eta neurri murriztaileen kontrako argudioak eman zituen, eta bere ustez, pandemia gainditzeko beste modu batzuk daukela azaldu zuen. Elkarrizketa hau maskararen erabilera derrigorrezkoa zenean eta Covid ziurtagiria indarrean zegoela egin zitzaion

- AINHOA ANDONEGI -

# “Talde immunitatea lortzea da pandemia gainditzeko modu naturala”

♦ **Bertsio ofizialaren oso bestelakoa da zuena, eta ondorioz, negazionista abizena jarri zaizue. Osasungintza publikoko langilea izanda, nola bizi duzu hau guztia?**

Negazionista terminoa nazismotik dator, eta negazionista esaten zitzaion Holokaustoa ez zela existitu esaten zutenei. Orain guri deitzen digute negazionista, euren ustez, gaixotasuna edo birusa existitzen ez dela esaten dugulako. Baina hori ez da egia. Nire korronteko taldeak ez du gaixotasuna ezeztatzen, baina eskatzen duguna da gaixotasuna oinarri zientifikotik behar den moduan kudeatzea. Nire ustez, orain arteko kudeaketan hartu diren erabakiek ez daukate oinarri zientifikorik, eta neurri asko ez dira osasun neurriak. Adibidez, musukoen kasuan, ez dago oinarri zientifikorik ziurtatzeko bere erabilerak kutsatzea murrizten duela; PCR probek ez dute balio Covid-19a bezalako infekzio gaitzak atzemateko... Sinestezina da. PCR proban positibo eman duen pertsona osasuntsu bat etxean egotera behartzen dute, gaixo asintomatiko terminologian oinarrituta! Gaixoa eta sintomarik gabekoa izatea kontrakoak dira. Guk aspalditik defendatu dugu termino hori ez dela zuzena, eta orain Carlos III. Institutu Nazionalako zuzendariak ere gauza bera esan du, eta erakunde hori da pandemiaren osasun kontrolaren ardura daukana. Gaixoak sintomak dituzten pertsonak dira. EAEn egin dituzten PCR proben %70 sintomarik gabekoei egin zaizkie, eta etxean sartu dituzte hamabost egunez hasieran, gero hamar egunez, eta ondoren, zazpi egunez. Gaixotasuna existitzen dela argi dago, baina gaitz hori zerk sortzen duen ikertu behar da, eta badirudi ez dela hori ikertu nahi.

♦ **Covid-19az hiltzeko arriskua murrizteko eta gaitza arinago pasatzeko modurik eraginkorrena txertoa dela esan zaigu, eta datu ofizialen arabera ere, ZIUetako gaixoen bi heren txertatu**

**gabekoak dira. Zuk, baina, txertoaren gainean ere zalantzak dituzu. Zerk kezkatzen zaitu?**

Lehenik eta behin argitu behar da orain txertatzen dutena ez dela txerto erreal bat. Botika geniko modifikatu bat da. Bakunak, definizioz, giza organismoa immunizatuko duten germen indargetuak dira, eta horri esker txertoa jasotzen duen pertsonak ez du gaixotasuna pasatuko. Bestalde, esperimendazio fase oso laburra izan duen medikamentua da. Osasungintzaren historian lau eta hamar urte bitartean behar izan dira txertoak garatzeko, eta txerto hau bi hilabete pasatxoan baliotu dute. Nola da posible biztanleria osoa txertatu nahi izatea, albo-ondorioak zeintzuk izango diren jakin gabe? Gainera, badaude Covid-19aren kontrako botikak. Ozonoterapiak emaitza onak eman izan ditu, baina Espainian ez dute apenas erabiltzen. Txertoa ez den alternatibak badaude, baina ikertu egin behar dira, eta hemen ez dago ikeritzeko interesik. Nik uste dut populazio guztia txertatzeko interesa zegoela hasieratik, eta hori lortzeko beldurra erabili dute. 2020ko martxoan Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) esan zuen munduko biztanleriaren %3,4 hilko zela Covid-19ak jota. 7.500 milioi biztanle daude munduan, eta kalkuluak ondo egin badituzte, horrek esan nahi du 300 milioi inguru hilko zirela. 2020ko datuen arabera, 1.700.000 biztanle hil dira Covid-19agatik, eta hori datuak puztu dituztela. Biztanleriaren %0,02 da hori, eta horrek esan nahi du biztanleriaren %99k gaixotasuna gainditu zuela. Hasieran emandako portzentajetik oso urrun dago, beraz, datu hori. Azkenaldian irakurri dudanez, ikerketak egin dituzte Covid-19aren hilkortasunari buruz, eta datuen arabera, hildako horien guztien %25 soilik hil dira Covidagatik. Espero dut berandu baino lehen hau guztia argitzea. Gezurrak eta beldurra erabili dituzte eten-



gabe, eta esango nuke bazekitela gainera gezurretan ari zirela, baina komunikabideek ere bertsio ofizialaren kanpaina babestu dutela. Gizartea beldurtuta dago. Ez da normala pertsona bat bere autoan leihoak itxita eta FFP2 maskara jantzita ikustea.

♦ **Umeak txertatzearen kontra agertu zarete, bereziki. Zein arrisku ikusten dizkiozu umeak txertatzeari? Zergatik horrenbeste erreparo txerto honekiko?**

Umeak txertatzea delitua da, umeek arin pasatzen dutelako gaixotasuna. Umeetan Covidagatik dagoen heriotza-tasa oso baxua da, eta hil direnak beste gaixotasun larriagoren bat zutenak izan dira. Gainera, demostratu da umeek ez dutela hasieran uste zen beste transmititzen gaixotasuna, eta adinekoak babesteko umeak txertatu behar direla esatea, gizarte gaixo baten adierazle da. Zaindu ditzagun zaurgarriak, baina umeak bakean utzita. Albo-ondorioak benetan kaltegarriak izan daitezke, eta dagoeneko hasi dira umeen artean pericarditis eta miocarditis kasuak areagotzen, eta txertoaren ondorioz hildakoak ere erregistratu dira. Gainera, 2020ko txerto bat ari dira ematen, jakina denean birusaren aldaera berrien aurrean ez duela babesik. Urtebete pasa daramate jendea txertatzen, eta ikusi dugu txertatuak beste guztiak bezalaxe kutsatu direla. Euskadin eman dizkiguten datuen arabera, ZIUetako gehienak txertatu gabeak dira, baina Asturiasko ZIUko buruak esan zuenez bere ospitaleko ZIUh ingesatutakoen %80 txertatutakoak ziren. Extremaduran, Covidarekin hiltzen direnen kasuan bereiztu egiten dituzte txertatuak eta txertatu gabeak, eta lau hilabeteko azterketa egin ostean esan dute hildakoen %87,4 txertatuak zirela, eta %12,6 txertatu gabeak. Eusko Jaurlaritzari datu hau eskatu zitzaionean esan zuen ez zeukala datu hori. Nola da posible datu hori ez edukitzea?. Kontua da ez dutela eman nahi.

♦ **Txertoa, zuen ustez, ez bada Covid-19aren kontrako metodo egokia, zein da egoera hau gainditzeko modua?**

Talde immunitatea lortzea da pandemia gainditzeko modu naturala, biztanleak gaixotasunarekin harremanetan jartzea. Horrek ez du esan nahi denek gaixotasuna pasatu behar dutenik. Antigorputzak sortzen dira, baina askok ez dute gaixotasuna gartuko, aldiz, bai, immunitatea, eta horri esker, lortuko dugu gaitzak indarra galtzea. Txertoaren eragina goraiatzeko dute, baina gaitzak indarra galdu badu, birus guztien eboluzio naturalari esker izan da. Orain asmatu dute immunitate hibridoaren kontzeptua, hau da, gaixotasuna pasatu eta txertatzea immunitate hibridoa lortzeko modua dela, baina hori ere kontzeptu okerra da, eta hainbat adituk esan dute horrek kalte gehiago egiten duela mesede baino. Tronbo kasuak gora egin dute, eta nik argi daukat txertoaren albo-ondorioa dela hori. Bihotzeko gaixotasunak eta haien ondorioz hildakoen kopuruak ere nabarmen egin du gora. Ni ez nago txertoen kontra: bidaiatzeko beharrezko txertoak hartu izan ditut, nire alabak bakunatuta daude, baina txerto hau, txerto erreala ez dena, esperimentazio fasean dagoena oraindik. OMEK gainera esan du martxoan pandemia bukatuko dela, beraz, ez dakit zertan ari diren.

♦ **Covid-19a eta gripea konparatu izan dituzue, eta bata zein bestea kudeatzeko modua ere antzerakoa izan beharko litzatekeela defendatu izan duzue. Bata endemikoa da, eta Covid-19ari fase honetan endemia deitzeak terminoa gaizki ulertzearekin lotuago dago, egoera epidemiologikoarekin baino. Zer diozu?**

Hainbat adituk esan dute gripearen txertoak sortu dezakeela antzerako ezaugarriak dituen infekzio gaitzen bat, eta horrek bere logika dauka. Covid-19ak eta gripeak oso antzerako sintomak dituzte. Hilkortasun tasa ere antzekoa dute biek, edo ni ausartzen naiz esatera Covid-19ak tasa txikiagoa duela. Gripearen eraginez urtean 750.000 lagun hiltzen dira munduan, eta arnas-gaixotasunekin beste pila bat hiltzen dira. Covidaren ondorioz, 2020an, 1.700.000 lagun hil zirela esan zuten, baina datu errealak emango balituzte gripeaz hildakoen kopuru antzekoa edo txikiagoa izango litzateke. Kontua da Covid-19aren ondorioz hildakoen datuak puztu egin dituztela, baina PCRan positibo eman izanak ez du esan nahi Covid-19a duenik. Horrelako kasu asko daude, eta nire ustez hildakoen kopurua berriz aztertu behar da, benetakoa datuak zein diren ikusteko. Covidagatik eta covidarekin hil direnak bereiztu egin behar dira.

♦ **Covid-19aren pandemian zehar ahotsik ez dizuetela eman salatu duzue. Zer da eskatzen duzuen?**

Debate zientifikoa eskatzen dugu. Bizitza guztian horrela egin izan da, eta hau bezalako gaitz berri baten aurrean, are beharrezkoagoa dela iruditzen zaigu. Baina ez dago horretarako interesik. Osasun agintariek, politikariek, medikuntzako instituzio kolegiatuek... ez dute nahi, eta komunikabideek ere ez digute ahotsik ematen, zentsuratu egiten gaituzte. Herritarrek eskubidea dute jakiteko beste iritzi bat dagoela gaitz honen inguruan, baina agintariek beste interes batzuk dituzte. Bakunen kontrako, konspiraiko eta negazionista ere deitu izan digute, eta ez gaituzte entzun nahi. Sekulakoa da egiten ari direna. Neurri murriztaileekin sortu duten ekonomia krisiaren eraginez negozio txiki asko itxi dira; konfinamenduak, alarma egoerak, itxiera perimetralak, bakunatu gabeen aurkako kanpaina eta musukoaren derrigortasuna ere ulertezinak dira, baina covid ziurtagiriaren inposizioa onartezina izan da. Helburu bakarra jendea bakuna hartzea derrigortzea izan da, eta ez da osasun neurri bat izan, neurri diskriminatzaile hutsa baizik.

♦ **Covid-19ari aurre egiteko gomendiorik baduzu?**

Osasuntsu jatea, ariketa fisikoa egitea, naturarekin harremanetan jartzea, eguzki orduak aprobetxatzea D bitamina kopurua handitzeko eta arnasa ondo hartzea. Maskarak ondo arnastea oztopatzen du, eta esaterako, umeak eskoletan hainbeste orduz maskararekin egotea, baita kirola egiteko ere, oso larria da. Musukoaren benetako eraginkortasuna neurtzeko ikerketarik ere ez da egin. Egin dezagun: har ditzagun 30.000 lagun musukoarekin eta beste horrenbeste musukorik gabe eta aztertu dezagun zenbat kutsatzen diren. Elkar zaintzea gomendatzen dut.

## Emakumeen talde nagusiak ezin izan zuen liderra menderatu



C.D. Elgoibarreko emakumeen taldeak porrot mingarria jaso zuen Mintxetan, igoera faseko liderra den Realaren aurka. Donostiarrek 0 eta 8 irabazi zuten. Aitzakiarik gabeko porrota, hortaz. Baina, aurkariaren ahalaren berri izateko lagungarria da zenbait datu mahai gainean jartzea. Izan ere, tamaina honetako garaipen argiak ari da lortzen Real igoera fase honetan. Jokatutako bost partidak irabazi dituzte txuri-urdinek, alde handiarekin guztiak: 38 gol sartuta eta gol bakar bat ere jaso gabe. Alegia, batez beste ia 8 gol sartu dituzte partidako; Mintxetan ere errepikatu zen estatistika. Elgoibartarren alde esan behar da, aurreko lau partidatan gol bakarra jaso zutela. Datuak datu, Realak Mintxetan erakutsi zuen futbolearen ongi jokatuta sartzen direla zortzi gol. Elgoibarrek postu bat galdu du igoera faseko sailkapenean, eta laugarren dago orain, hirugarren dagoen Mundarorekin berdinduta. Biek dituzte 10 puntu. Antiguoko dago bigarren postuan, 13 punturekin, Realak baino bi gutxiago. Hain justu ere, elgoibartarrek Antiguoko izango dute aurkari, asteburuan, Donostian jokatuko duten neurketan.

## Sanloko bost jokalaria deitu ditu Euskadiko selekzioak eta 25 jokalaria Gipuzkoakoak



Sanloko jokalaria eta entrenatzaile sorta ederra ageri da Euskadiko eta Gipuzkoako eskubalo selekzioetako hautatzaileen deialdian. Infantil, kadete zein jubenil mailetan diharduten Sanlo kirol taldeko 30 neska-mutil deitu dituzte guztiara. Horietako bost Euskadiko selekzioak deitu ditu: Sare Iriondo eta Ekin Furnier (infantilak), Nahia Urbiola eta Haizea Alonso kadeteak, eta Eider Elorza jubenila. Gipuzkoako selekzioek deitu dituzten Sanloko jokalarien zerrenda [barren.eus](http://barren.eus) webgunean ikus dezakezue. Jokalariez gainera, Sanloko hiru entrenatzaile izango dira kadete nesken Gipuzkoako selekzio arduradunak: Lorea Gabilondo, Iker Hernandez eta Julen Perez Cortes.

## Elene Beristain eta Sara Etura, Realarekin

C.D.Elgoibarko bi jokalaria deitu dituzte Realarekin teknifikatzera, Elene Beristain eta Sara Etura. Kadete nesken taldean jokatzen du Elene Beristainek, eta infantilen taldeko jokalaria da Sara Etura. Batak zein besteak Realak antolatu dituen teknifikazio entrenamendu saioetan hartuko dute parte. Zubietan egingo dituzte teknifikazio saio horiek: otsailaren 7an egin zuten lehena, eta otsailaren 14an izango da bigarrena. Elgoibarko jokalaria Realarekin entrenatzera joango diren moduan, Realeko teknikariak Elgoibarrera ere etorri dira entrenamendu saioa gidatzera. Bigarren urteko alebin mailako neska entrenatu zituzten martitzenean, Mintxetan.



## Jardunaldi txarra Sanloko talde nagusientzat

Azken jardunaldian emaitza txarrak eskuratu zituzten Sanloko bi talde nagusiek. Gaurve Asesoresek 18 eta 28 galdu zuen Zaragozako Shra Colores taldearen aurka Olaizagan jokatutako partidaren. Elgoibartarrek Ohorezko Zilarrezko mailako hamargarren dira orain, 12 punturekin. Senior gizonen Alcora Forging Group taldeak Basaurin jokatutako partidaren, eta 27-24ko emaitzarekin galdu zuen. Bi taldeek kanpoan jokatutako dituzte hurrengo neurketak: Alcora Oñatin jokatutako du, Aloña Mendiren aurka, eta Gaurvek Errioxan, Grafometal La Riojaren kontra.



## Modelos Modelberrik multzoko oilarren arteko borroka galdu zuen MUren kontra



**G**ipuzkoako Hirugarren Mailako bigarren multzoko lidertza jokoan zegoen Modelos Modelberri eta Mondragon Unibertsitatea saskibaloitza taldeek joan den domekan, Olaizagan, jokatu zuten ligako partidaren hasieratik hartu zuten aurrea markagailuan eta atsedendaldia luzera 23 eta 48ko emaitzarekin ailegatu ziren. Hirugarren laurdenean etorri zen Modelos Modelberriren susperraldia eta zenbait unetan markagailua iraultzeko gai izan zitekeela ere bazirudien. Elgoibartarren aldekoa izan zen hirugarren laurdena (20-11). Azken laurdenean, baina, hiruko garrantzitsuak saskiratu zituzten kanpokoek eta aldeari eutsi zioten, 14 eta 17ko partzialarekin. 57 eta 75 amaitu zen partida. Garaipen honi esker, Modelos Modelberri harrapatu du sailkapenean MUK. Biek dituzte 21 puntu, baina partida bat gutxiago jokatu dute arrasatearrek. Ligako hamabi jardunalditan bederatzita partida irabazi eta hiru galdu ditu Elgoibarko taldeak, eta Arrasatekoak hamar partida irabazi eta bakararra galdu du orain arte. Take Coach taldea dago hirugarrenen, 20 punturekin. Hamar taldek osatzen dute multzoa.

## Morkaikoren Eguna bueltan da

Bi urteko etenaren ostean, bueltan da Morkaikoren Eguna. Elgoibarko Mendi Itzulia, Itzulitxoia eta Finalista Eguna egun berean batu zituen Morkaiko Mendi Taldeak 2011. urtean, Morkaikoren Eguna izenarekin, eta 2019an egin zuten azkenengoz, pandemia dela-eta. Aurtengo Morkaikoren Eguna,



hamargarrena, maitzaren 14an izango da. Finalista Egunean urtean zehar igotako mendiatik dominak banatzen dizkie Morkaikok mendizaleei. 2021eko maiatzaren 1etik 2022ko apirilaren 30 bitartean igotako mendiak hartuko dituzte kontuan zerrendak osatzeko. Mendizaleek bi modu dituzte igotako mendien zerrendak aurkezteko: Elkarteak Errosario kailean duen egoitzan aurkeztuta, edo posta elektronikoz, [morkaiko@morkaiko.eus](mailto:morkaiko@morkaiko.eus)-era bidalita. Zerrendak aurkezteko azken eguna apirilaren 27a izango da.

## Emaitzak

### FUTBOLA

Urola 0 – Haundi 1 (Ohorezko Erregionala)  
 Elgoibar 0 – Real Sociedad 8 (Emak, nag.)  
 Elgoibar 8 – Vasconia 0 (Erreg.)  
 Aloña Mendi 1 – Elgoibar 1 (Oho. jub.)  
 Arrupe Chaminade 1 – Elgoibar 0 (Jub. 1. maila)  
 Elgoibar 3 – Lagun Onak 3 (Oho. kad.)  
 Elgoibar 4 – Ikasberri 1 (1. mailako kad.)  
 Elgoibar 3 – Arizmendi 0 (Kad, nes.)  
 Elgoibar 6 – Urki 0 (Infantil Txiki)  
 Burumendi 0 – Elgoibar 1 (Inf. gorria)  
 Elgoibar berdea 0 – Aretxabaleta 10

### SASKIBALOIA

Modelos Modelberri 57 – MU 75 (3. maila)

### ESKUBALOIA

Urkunde Elg. 24 – Legazpi 33 (Kad. mut.)  
 Deuko Izarra Elg. 22 – Ordizia 14 (Jub. mut.)  
 Arilan 25 – Egia 17 (Sen. emak.)  
 Neurri Elg. 36 – Arrasate 10 (Kad. nes.)  
 Basauri 27 – Alcorta F.G. 24 (Senior giz.)  
 Bidaso 24 – CIMDE Elg. 19 (Jub. nes.)  
 Gaurve Asesores 18 – Zaragoza 28 (Sen emak.)  
 Ereintza 27 – Bankoa Elg. 14 (Jub. nes.)  
 Bera Bera 32 – Deca Elg. 31 (Jub. mut.)  
 Salento Gelati 18 – Kukullaga 30 (Kad. nes.)  
 Bera Bera 29 – Astigarraga GYS 25 (Kad. nes.)

## Agenda

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 12  
 10:00 Elgoibar – Urki (Infantil gorria)  
 12:00 Elgoibar – Arrasate (Inf. berdea)  
 16:30 Haundi – Allerru (Ohorezko. erreg.)  
 18:45 Elgoibar – Lagun Onak (Oho. jub.)  
 Domeka, 13  
 10:30 Elgoibar – Amaikak Bat (Benj. nes.)  
 10:30 Elgoibar – Anaitasuna (Benj. nes.)  
 11:30 Elgoibar – Ilintxa (Futbol Eskola 2011)  
 15:30 Elgoibar – Lagun Onak (Partehartzea ale.)  
 17:00 Elgoibar – Beti Ona (1. maila jub.)

### ESKUBALOIA (Olaizaga kiroldedian)

Zapatua, 12  
 10:00 Pneumax – Ereintza (Inf. nes.)  
 11:30 Astigarraga GYS – Usurbil (Kd. nes.)  
 13:00 Deca – Egia (Jub. mut.)  
 17:45 Salento Gelati – Aloña Mendi (Kad. nes.)  
 19:30 CIMDE – Aiala Zarautz (Jub. nes.)  
 Domeka, 13  
 10:00 Dario Bus – Aiala Zarautz (Inf. nes.)  
 11:30 Zubacor – Arrate (Inf. mut.)  
 13:00 Pizzeria Salento – Donibane (Senior giz.)

**Gibel haundixak euki:**  
Pertsona lasaiegia izan. Baita **Gibelaundixa** izan ere.

## 'Bidai on, amona Braulia' antzezlan musikatua eskainiko du Jazzbana Ensemblek domekan Herriko Antzokian

Jazzbana Ensemble taldea *Bidaia on, amona Braulia* antzezlanarekin etorriko da domekan Herriko Antzokira. 16:30ean izango da emanaldia eta antzerkiak eta zuzeneko musikak bat egingo dute taula gainean.

Antzerkia eta musika bateratzen dituen familientzako ikuskizunean jazzaren historia ezagutaraziko du bere amona Brauliaren egunerokoa irakurriz eszenatokian agertuko duen neskakilak. Amolak batera joz Ameriketako Estatu Batuetan egindako bidaian bizitako anekdotez gain, hainbat musika estilo zuzenean entzuteko aukera izango du bertaratzen den entzuleak.

Emanaldirako sarrerak salgai daude: umeentzako 3,5 eurotan eta helduentzat 5 eurotan. Sarrerak [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) helbidean erosi ahal izango dira aurrez edo zapatuan 18:15etik 20:45era bitartean Herriko Antzokiko lehiatilan. Bestalde, sarrerak agortu ezean egunean bertan ipiniko dituzte lehiatilan salgai.



## 'Lehendakari gaia' antzerkia eskainiko dute Zuhaitz Gurrutxagak eta Iker Galartzak

Gaur, barikua, eskainiko dute Zuhaitz Gurrutxagak eta Iker Galartzak 'Lehendakari gaia' antzezlan Herriko Antzokian. Antzerkia egin aurretik bere arrakasta aipatzekoa da, sarrera gehienak salduta baitzeuden atzo. Inbestidura-ekitaldi aurretik lehendakariari sortutako arazo larri bat bideratzeko psikiatrarekin izango duen hizketaldia izango da antzezlanaren oinarria. Gaiak berak serioa dirudien arren, umore ikutu nabarmena emango diote antzezleek ikusleei barrea eraginez. Elgoibarren ikusterik ez dutenek beste toki askotan izango dute antzerkiak gozatzeko aukera. Esaterako, Eibarren otsailaren 28an euskaraz egingo dute eta gaztelaniaz martxoaren 2an.

### Udalerri euskaldunetako udalekueetan izena emateko epea zabalik

Mendaroko Udalak bat egin du udalerri euskaldunetako gazteentzako UEMAk antolatutako udalekuekin. Ekainaren 27tik uztailaren 3ra bitartean egingo dute udaleku ibiltaria eta zabalik dago izena emateko epea, martxoaren 31ra arte: 943 816 699 zenbakira deituz; [uema.eus](http://uema.eus) webguneko formularioa betez edo posta elektronikoz: [hezkontza@uema.eus](mailto:hezkontza@uema.eus). 50 lagunek bi talde abiatuko dira Tolosatik bat eta bestea Etxarri Aranaztik, eta laugarren egunean Leitzaan elkartuko dira. Gazteak euskararen inguruan sentibilizatzeko, kontzientziazteko eta eragile aktibo bihurtzeko da helburua.

### 'Incognita Patagonia' dokumentala ikusteko aukera gaur Mendaron

Gaur, otsailak 11, *Incognita Patagonia* dokumentala eskainiko dute Mendaroko San Agustin Aretoan 19:30etik aurrera eta hitzaldia izango da ondoren. Eñaut Izagirre elgoibartarraren ikusentzunezkoak Patagoniako azken izotz eremua arakatzeko egindako eskalada eta kartografia glaziarreko esplorazio bat azaltzen du. Patagoniako paisaia mitikoek jende asko erakartzen duten arren glaziar ezkutu eta mendikate urrunetara espedizioak egiteko aukera baliatu zuten Izagirrek eta bi lagunek eta izotzen atzerakada konfirmatzeaz gain inguruko estazio meteorologikoen sarea abian jartzeko tarte hartu zuten.

### Inklusioa bultzatzeko 'Gipuzkoa Dantzan' ekimena Elgoibarren

Otsailaren 19rako *Gipuzkoa Dantzan* sormen ekimena antolatu dute Udalak eta Foru Aldundiak. Dantzaren eta hausnarketaren bidez inklusioa lantzea da helburua. Saioa 13 urtetik gorako nerabe eta gazteentzat izango da Aita Agirre Kultur Guneko Areto Nagusian 11:00etatik 13:00etara. Jaione Artcherekin balleteko pausoak eta hainbat diziplina landuko dituzte; Ena Fernandezekin berriz, gorputz adierazmena, musika eta soinuaren bidez eta *Contact improvisación* teknika berria. Otsailaren 14rako eman behar da izena <https://forms.gle/aNDfehLGH8wvE-Dos9> helbideko formularioan.



Manu Sanchez

## Izaro Etxegibel



Hiru pertsona ginen tabernako mahaietan kafea hartzen, bi emakume gazte eta hirurogeitaka urteko gizonetzkoa. Ni erdian; borobilean egonda zail da jakitea erdian nor dagoen, erdian diot neu nintzelako behar zen pieza beste bi pertsona haiek

elkarrekin eserita eta berbetan egon zitezten.

- *Barkatuko diazu, baina momentu honetan relojerixan naio.* Esan zion neskak gizonari. Adi-adi zegoen, baina konturatua nintzen ez zitzaiola erreparatzen ari mezuari, baizik eta ahotsari, ahoari, aurpegikerari, betaurrekoei, eskuei...

- *Zure anaixen iguala zera.*

- *Bai?*

Noski hori uste zuela. Horrez gain, erloju-dendako txoko bakoitzean zer zegoen esateko gai omen zen, zehatz-mehatz. Era-kusleihenaren ezkerreko aldean gizonetzkoen erlojuak; gorago, beldarritakoak; eskuman, eskumuturrekoak.

- *Eta zure ama? Mostradorian ikusten dot ontxe.*

Amak soinean izaten zuten eraztunarekin maiteminduta zegoela esan zion. Zoratzerraino omen zuten gustuko. Aurrean balu bezala gogoratzen zuela: urrezkoa eta harribitxi granateak dir-dir. Gogoan du gizonak ere, amaren eskuak nola ahaztu se-meak.

Etorri zen emaztea, galdetu zion ea eraztun hura berak zeukan. Baietz, gordeta zuela etxean. Ikusteko gogoz geratu nintzen, argi irudikatu arren.

Gehiagotan erosiak zituen nonbait neskak erlojuak eta bitxiak, harrezkero, baina aspaldiko oroitzapena zuten iltzatuta. Betiko. Gaur egun daudenak baino, hobeto baitakigu nolakoak ziren duela 20 urte itxi zituzten denda haiek: usaina, soinuak... miresmenetik, malenkoniatik, nostalgiatik.

Bihotzean sentitu nuen elkarrizketa, isilik, eta gogora etorri zitzaidan Goizalde Landabasori irakurri berri niona: "*Gure paisaia sentimentalak ere baditu kokaguneak, baditu zure bizitzako zati diren, edo izan diren, espazioak*". Bai, izan, baditu. Betiko denda eta tabernak ixten ari diren honetan, kaleak argi gabe geratzen ari diren honetan.

***"Gure paisaia sentimentalak ere baditu kokaguneak, baditu zure bizitzako zati diren, edo izan diren, espazioak"***

**LANA.....****Eskaerak**

Etxeak edo portalak garbitzeko prest nago. Elgoibartarra naiz

☎ 632 729 663

Adinekoak ospitalean edo etxean zaintzeko profesionaltasun-ziurtagiria duen laguntzailea, lanerako prest. Goizez, arratsaldez, orduka... esperientzia daukat, eta elgoibartarra naiz.

☎ 685 729 790

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut. ☎ 631 229 408

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Beharrezkoak diren tituluak ditut baita esperientzia ere. Euskaltuna naiz. ☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan, gauzez edo orduka. Esperientzia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. ☎ 631 425 686

Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 653 407 897

Adinekoak zaintzeko eta sukaldari edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 643 071 900

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.

☎ 642 196 564

Adineko pertsonak ospitalean edo etxean zaintzeko profesionaltasun-ziurtagiria duen laguntzailea, lanerako prest. Esperientzia. Elgoibartarra naiz.

☎ 660 511 781

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Orduka, etxeko langile moduan, asteburuetan... ☎ 632 589 202

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago.

☎ 641 341 896

LHko eta DBHko eskolak emateko prest nago. Arratsaldez. ☎ 649 446 529

Umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 612 202 116

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 642 716 984

Garbiketa lanetarako edo adinekoen zein umeen zaintzan lan egiteko prest nago.

☎ 691 313 505

**Eskaintza**

Aste barruan umeak goizean, eguerdian eta arratsaldean ikastolara eraman eta handik etxera ekartzeko pertsona bat behar dugu. ☎ 628 115 677

BPXport enpresak Olaizaga kiroldegiko eta Mintxeta kirolguneko harreran lan egiteko pertsona behar du. Administrazioan eskarmentua izatea eta euskaraz jakitea eskatzen da. CV [elgoibar@bpxport.es](mailto:elgoibar@bpxport.es) helbidera bidali behar da.

**GARAJEAK.....**

104m<sup>2</sup>-ko garaje itxia alokatzen dut, Olatsope inguruan. Autokarabana gordetzeko eta pintore edo igeltseroentzako aproposa. ☎ 661 827 292

**ETXEBIZITZAK.....**

70 m<sup>2</sup>-ko Babes Ofizialeko etxea salgai Gabriel Kurutzelaegin. Sukaldea, egongela, bi logela, komuna eta balkoia barrualdera. Garajea eta trasteroarekin. Mugitzeko desgaitasuna duten pertsonentzat egokitua. ☎ 688 724 122

Etxea hartuko nuke alokairuan. Luzerako alokairua izango da.

☎ 643 654 881

**BESTELAKOAK.....**

Hilaren 29an Karakateko aparkalekuan ume baten bizikleta kaskoa topatu genuen. ☎ 639 671 419

Urtarrilaren 22an lora galduta zen Urazandi auzoan. Yaco buzian gorri arrazakoa da.

☎ 680 704 396

619 815 403

**OSPAKIZUNAK.....**

Maiatzaren 28an 1971n jaiotako enbarkaria egingo dugu, Belaustegi jate-txean. Egun osoko egitaraua prestatzen ari gara. Izena emateko: [1971elgoibar@gmail.com](mailto:1971elgoibar@gmail.com)

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Euzkoako Finantza Administrazioen Kontseilua



**ROSA Ma  
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)

**Orain dela aste batzuk izandako bilera baten etxejabe batek eskatu zuen aktan jasotzea berak eta beste jabe batek batzarrean egindako adierazpenak. Izan ere, bere ustez, funtsezkoak dira gai zerrendako puntu batean. Jakin nahi nuke akta horretan bileran gertatutako guztia jaso behar al dugun ala hartutako erabakiak beste-rik ez.**

Legez, aktak hartutako akordioak jaso behar ditu, baita aldeko eta kontrako botoak eman dituzten jabeen izenak eta dagozkien parte-hartze kuota, baldin eta eraginik badute akordioaren balioztasunean. Legea gutxienezko eduki batzuk jartzera mugatuta dago, akordioaren edukia aipatuz, baina hainbat kontu idatziz ez jasotzeak akta baliogabetzea eragin gabe. Beraz, aktaren edukia, etxejabeen adierazpenak, idatziak edo beste dokumentu batzuk jaso gabe, hartutako erabakietara mugatzea, legearekin bat dator.

**Aholkua: Ez da ez beharrezkoa, ez derrigorrezkoa ezta galdagarria ere aktan jasotzea bilera osoan barrera gertatutako guztia: etxejabeek esandakoa, emandako idatziak, egindako eskariak zein adierazpenak. Jabekideen idatziak batzea ez da aurreikuspen legala, beraz, hori ez egitea ez da legezko akats bat eta are gutxiago akta balio gabe uzteko arrazoi bat. Hortaz, erabakitakoa baino ez da modu zorrotzean jaso behar.**

ASESORIA  
**GO/R**


**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak)  
baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora,  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  
☎ 688 634 044 biddalita.




San Blas usainarekin batera iritsi zaizu kandlei putz egiteko garaia. 8 urte potolo! Zorionak, **Lur!**




Zorionak, **Erik**, gaur 11 urte bete dituzulako. Ume zoragarria zara! Segi horrela! Muxu handi bat etxekoan partez. Ondo pasa zure egunean!



Zorionak, **Leire!** 10 urte, zenbaki politxa. Baina zu, politxagua! Muxu, muxu, muxu...




Zorionak, **Danel**, astelehenean 7 urte beteko dituzulako! Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Aimarren partez.



Lau, lau, lau... sardina bakalau! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu, **Liher!**



Zorionak, **Roke!** 9 urte handi beteko dituzu larunbatean! Ondo-ondo ospatu familia eta lagunekin.



Zorionak, **Auritz** eta **Sare**, ostegunean 5 urte handi bete zenituztelako. Segi horrela! Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Sara!** Otsailaren 15ean, 4 urte! Muxu handi bat Nuria, Leire eta Maialenen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



## KONTSULTATEGIA



*Zenbatean behin  
komeni da  
hortzen garbiketa  
eta azterketa egitea?*



Aldaz Hartz-klinikako doktoreen arabera, gomendagarria da 6 hilean behin hortzen azterketa egitea, aho-hortzen egoera zein den ikusteko. Azterketa horretan erabakiko du zure odontologoak garbiketa egitea beharrezkoa den ala ez, eta zure kasuan jarraitu beharreko mantentze-jarraibideak azalduko dizkizu.



#### ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22- 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)

**943 366 377**

## 11 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzeak, Jubilatuen Bil-tokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

**19:00** Antzerkia: *Lehendakari gaia*. Herriko Antzokian.

**19:30** Ikusentzunezkoa: 'Incógnita Patagonia'. Eñaut Eizagirrek hitzaldia emango du Mendaron, San Agustin kulturegunean.

## 13 DOMEKA

**19:00** Antzerkia: *Bidai on, amona*. Herriko Antzokian. Sarrerak erosteko: [www.herrikoantzokia.eus](http://www.herrikoantzokia.eus)

## 17 EGUENA

**17:00 eta 17:30** Ipuin kontalaria: 'Zorte txarreko otoak'. Maite Francok eskainiko du, Udal Liburutegian. Lehen saioa LH1ekoentzako, eta bigarrena LH2 eta LH3koentzat.

## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'Spiderman: no way home'

12 zapatua: 19:00 / 22:15

13 domeka: 19:00

14 astelehena: 21:00



### 'La hija'

(Ongarri zinekluba)

16 eguaztena: 21:00

## ETA, DEBABARRENEAN ZER?

### 'FLYSCH BELTZA'

BISITA GIDATUA, DEBAN. OTSAILAK 20, 12:00ETAN

Geoparkeko itsas hondoak eta flysch zaharrena ezagutzeko ibilaldia (euskaraz). Ordu eta erdiko iraupena izango du, eta antolatzaileek gomendatu dute jantzi egokiak eramatea, eguraldiaren iragarpenaren arabera. 25 lagunentzako lekua dago, eta izena eman behar da. 10 urtetik gorakoentzako irteera da.

Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus)

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

11 BARIKUA	12 ZAPATUA	13 DOMEKA	14 ASTELEHENA	15 MARTITZENA	16 EGUAZTENA	17 EGUENA	18 BARIKUA
Egunez Fernandez	Egunez *Yudego	Egunez *Yudego	Egunez Arriola	Egunez *Barrenetxea	Egunez Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez *Arriola
Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00  
Esther Mendinueta Berastegui.  
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar)  
943 820 106




## *Maria Paz Ansuategi Maguregi*

*Gure etxeko matriarka  
ezpain gorridun dama,  
zugandik ikasi degu  
umorez bizitzen ama,  
transmitituko diegu  
zuk emandako dana.  
Gure bizipen goxoak  
zure izena darama.  
Berriz ikusiko gera  
maite zaitugu amama.*

Etxekoak

2022ko otsailaren 2an hil zen, 96 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



II. URTEURRENA

## *Luis Mari Iriondo Garate*

2020ko otsailaren 11n hil zen, 88 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailaren 13an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

*Maitasunez, beti gure bihotzetan.*

Etxekoak



III. URTEURRENA

## *Arantza Berasaluze San Martin*

2019ko otsailaren 8an hil zen, 59 urte zituela.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.*

Senideak eta lagunak



# GREEN REMI MIO ON FE N GIDA

## IGELTSERITZA

**A. Garate**

Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia  
Elgoibar

**610 226 651**

## ELEKTRIZITATEA

**egoluz**

ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345  
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 behea  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**

Errosario kalea, 15 behea - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

**943 744 019  
605 713 168**

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

## LEIHOAK

**LODOSO  
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90



## ARROZTEGIAK

**Ulazia**

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industrialdea, 1-O/ 1-P  
**943 740 547**



**MAR**  
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriamar@hotmail.com



**iraolagoitia**

arroztegia · altzariak · etes-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

Arroztegia Carpinteria

**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

**BIENA** S.L.  
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus



## ITURGINTZA

**ONGI** iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 1  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com

**SANTANA**



Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOAGA** S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
tienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

**MIGUEL AZPIRI**  
iturgina

Iturgintzako eta berokuntzako  
ordezkapenen konponketak.

**635 133 841**

**Berehalako zerbitzua  
ematen da!**

